

## Hau ez da gezurra

### 100 ginen

Lehenengo adreilua jaso ondoren, niri zuzenduta ez egon arren, kas-koan kanka! sentitu nuen nire poze-rako. "Itzul gaitezen ekintzara", "ekin diezaiogun lanari", eta horre-lako esaldi beroak zetozkidan buru-ra. Zuri idazten dizut, izango den primizia mundiala jakin dezazun.

Nahiz eta irratian oso denbora gu-txi eraman, kazetaritzaren sindro-meak kutsatu nau dagoeneko, esclu-siben kalenturak alegia. Eta iazko urritik hona isilpean prestatu dugun txanpligua, gure zutabe honetan le-hertzeta erabaki dut.

Lagun batzuren artean musika tal-de berria egiteari ekin diogu azken hilabeteetan. Jadanik 13 kanta pres-taturik ditugu martxoaren lehenen-go hamabostaldian grabatzeko, eta gure lehenengo diska izango dena osatzeko.

Zuzenean ez jotzea pentsatu dugu (besteek bestelako zereginak dituz-telako eta nire osasunak ez lukeela-ko jasango), baina orain arte egin dugun bezala, eraso-sorpresa izango da gure arma, eta beste motako eki-taldiak antolatuko ditugu.

Entsaiatzen dugun zuloak, Holan-dan ezagututako gotorlekua gogora-razten dit, Bigarren Gerra Mundia-lean naziengandik ihes egitearren eraikitakoa. Baina duela hiru hilabe-te Montoia etorri zitzaidanean Mikel Laboari egingo zaion omenaldi-dis-koan parte hartzea eskainiz, zera pentsatu nuen, "tapagailua hemen daukat": *Permin eta pipermin gorriak*. Baina taldearen benetako ize-na ere, zutaberako gordetzen nuen, eta Mikel Laboaren "Gaberako ater-bea" kantaren bertsioa egin dugu-nez. *Negu Gorriak* jarri diogu taldea-ri.

Ilusioa egingo dizulakoan, agur-tzen zaitut, baina kontuz, negu gor-ria dator eta.

FERMIN MUGURUZA